

Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuetako esku-hartze birtuala

HAURRENTZAKO ZERBITZUETAN
TEKNOLOGIAREN ERABILERA ADOSTEKO DOKUMENTUA






www.gipuzkoangazte.eus

@gipuzkoangazte

2023





Hastapenak **6-8**

- Sarrera
- Zein eremutan aplikatzen da?

Printzipio eta balio etikoak **9-11**

- Balioak
- Informazio pertsonalaren erabilera
- Gailu mugikorren erabilera
- Berehalako mezularitza eta sare sozialen erabilera

Eginkizunak eta betebeharrak **12-15**

- Teknikarien jokabide-kodea
- Hezitzaileen jokabide-kodea
- Haurren jokabide-kodea
- Haurren *guraso/tutore/arduradunaren* jokabide-kodea

Adostasun dokumentua ez


betetzea.....15

Hezitzaileen eta haurren arteko itun

digitalaren eredua.....16

Eranskina.....17

- Sare sozial bakoitzarekin egiten dugun lan-mota



✖ Hastapenak

- Sarrera
- Zein eremutan aplikatzen da?



Sarrera

_____ haurtxokoak gure herriko haurren integritatea zaintzeko eta babesteko konpromisoa duenez, eta sustapenaren balio eta printzipioak bultzatu eta idatziz jasotzeko helburua duenez, hemen azaltzen dugun dokumentua sortu du gure zerbitzuaren jarduera-eremuan teknologia digitalak erabiltzeko.

Azken urteotan teknologia gure zerbitzuaren lan egiteko moduan txertatu da, eta sare sozialak eta berehalako mezularitza gure sustapen lana egiteko tresna¹ bihurtu dira. Horien bitartez:

- Haurrentzako eduki hezitzailea zabaltzen dugu
- Beraientzako interesgarria den kalitatezko informazioa zabaltzen dugu
- Zerbitzura gerturatzen ez diren haurrekin lan egiteko aukera ematen digute
- Herriko haurren ikusgarritasuna sustatzeko balio digu, haurrak komunitateko protagonista izan daitezen

Era berean, gure hezkuntza-lana esparru digitalera zabaldu nahi dugu eta, horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu gure zerbitzuetan teknologia erabiltzeko modua adostea. Erabilera horrek barnean hartzen ditu haurrak zein zerbitzua bera eta, beraz, haurtxokoan teknologiaren erabilera arduratsua eta eredugarria izatea bilatuko da (esaterako, ateratzen diren argazkietarako irizpideak ezarriz edota hurrei beti argazkietan atera nahi duten galdetuz).

Zerbitzuari lotutako pertsona guztiek berretsiko dute dokumentu hau eta, ondoren, zerbitzuaren arduradunek dokumentua barruan zein kanpoan ezartzeko eta zabaltzeko ardura hartuko dute.

Teknologiaren erabilera adosteko dokumentu hau Digitalde Komunikazioak egindako dokumentu batean oinarrituta dago: “GIDA, TEKNOLOGIA DIGITALEN ERABILERA ARDURATSUA IZATEKO, kirol-erakundeetan adingabeekin”.

¹ Eranskinean zehaztuta dago zerbitzuan sare sozial eta aplikazio bakoitzarekin egiten den lan-mota.

Zein eremutan aplikatzen da?

Hemen jasotako teknologiaren erabilera adostua gure zerbitzuaren jardun-eremuarekin lotutako jarduera guztietan aplikatuko da, bai zerbitzuak berak antolatutako ekintza guztietan, bai eta zerbitzuaren izenean parte hartzen den ekintzetan ere.

Edonola ere, adostasun horrek zerbitzuari lotutako pertsona guztiei eragiten die: udal-teknikariak, hezitzaileak, haurrak eta familiak.



✖ Printzipio eta balio etikoak

- Balioak
- Informazio pertsonalaren erabilera
- Gailu mugikorren erabilera
- Berehalako mezularitza eta sare sozialen erabilera



Printzipio eta balio etikoak

Zerbitzuari lotutako pertsonen beti bete behar dituzte adostasun-dokumentu honek jasotzen dituen alderdi guztiak, printzipio eta balio hauek sustatuz:

Balioak

- **Babesa**, pertsonen (batez ere hurrei) eta ordezkaten den zerbitzuaren irudiari eta interesen aplikatuko zaie.
- **Errespetua**, hurrei eta hezitzaileei.
- Bakoitzaren edo kolektiboaren **duintasunaren** babesa.
- **Zintzotasuna**, dokumentuarekiko koherenteak ez diren ekintzak edo jarrerak ez egiteko. Jarrera akatsgabea eta ereduak jokabidea edukitzea.
- **Aukera-berdintasuna** eta arrazak, generoak, jatorriak, erlijioak, sexu-joerak edo iritzien eragindako diskriminazioaren aurkako jarrera izatea.

Aipatutako printzipio eta balioekin lotuta, adostasunak aplikatzeko hainbat eremu azalduko dira hemen:

Informazio pertsonalaren erabilera

- ✔ ONARTZEN DA haurren datuak jasotzea, betiere datuok zerbitzuaren jardueretan parte hartzeko beharrezkoak badira. Gainera, nahitaezkoa izango da eskaeraren arrazoia aurretiaz jakinaraztea eta, horretarako, haurren arduradunek baimena ematea eta jasotzea.
- ✔ ONARTZEN DA haurren izenak eta irudiak Interneten erabiltzea, betiere haurrek eta gurasoek onespina sinatu badute eta helburu zehatz batekin eta modu puntualean erabiltzen bada.
- ✘ Ondorioz, EZ DA ONARTZEN haurren informazio pertsonala haren onespenez gabe ezagutzera ematea, edo guraso edo legezko tutorearen onespenez gabe, ezta beharrezkoak ez diren datuak argitaratzea (adibidez, jaiotze-eguna, altuera, nazionalitatea edo pisua).

Gailu mugikorren erabilera

- ✓ Gailu mugikorra ERABIL DAITEKE zerbitzuko jarduerarekin lotutako zenbait egoeratan, gidatu gabeko ekintza edo joan-etorri luzeetan, esate baterako. Hala ere, horrelako kasuetan gomendagarria da erabilera adostea, denbora eta ordutegiei dagokienez.
- ✗ Gidatutako ekintzetan EZIN DA gailu mugikorrik erabili, salbu eta egingo den ekintza-motak horrela beharko balu.

Berehalako mezularitza eta sare sozialen erabilera

- ✓ Interneten sustapen-lana egin ahal izateko, sare sozialetan eta berehalako mezularitzan ZERBITZUAREN IZENEAN sortutako profilak erabiliko dira.
- ✗ Zerbitzuan arduraz ERABIL DAITEZKE tresna digital horiek, betiere, zerbitzuak adierazitako arauak errespetatzen badira (adingabeen adina, ordutegiak, elkarrizketa-protokoloa, etab.).
- ✗ Zerbitzuko ekintzen irudiak edo bideoak egin eta konpartitu DAITEZKE, barnean erabiltzeko edo sare sozialetan zabaltzeko, betiere, adingabeek onartzen badute eta adostutako irizpideak betetzen badira (irudi-motak errespetatuz, gain-esposizioa saihestuz, etab.).
- ✓ Berehalako mezularitza eta sare sozialen bidez egindako komunikazioa ez da inoiz zuzenean hurrekin egingo, baizik eta hauen guraso edo tutore legalarekin. Gainera, zerbitzuko inor baztertuko eta hortaz, beste bide batzuk erabiliko dira kanal horietan ez dauden haurren gurasoengana iristeko.
- ✓ Haurren guraso edo tutoreekin eduki daitezkeen Internet bidezko elkarrizketak beti zerbitzuarekin erlazionatutako gaiak jorratzera bideratuta egongo dira, hau da, egiten den hezkuntza-lanaren barnean kokatuko dira.
- ✓ Tresna digitalak erabiltzean, hurrekin zehaztutako akordioak errespetatu beharko dira.



Eginkizunak eta betebeharrak

- Teknikarien jokabide-kodea
- Hezitzaileen jokabide-kodea
- Haurren jokabide-kodea
- Haurren *guraso/tutore/arduradunaren* jokabide-kodea



Eginkizunak eta betebeharrak

Haurtxokoarekin erlazionatutako pertsona guztien ardura eta betebeharra da adostasun-dokumentu hau ezagutzea, errespetatzea eta praktikara eramatea, baita zabaltzea eta betetzen dela zaintzea ere.

Zerbitzuaren arau orokorrez gain, bakoitzak bere eginkizunetan errespetatu eta aplikatu beharko du jokabide-kode hau:




Teknikariaren jokabide-kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, udaleko sustapen-teknikariei hau eskatuko zaie:

- Udaletik (edo gutxienez departamentutik) egiten den tresna digitalen erabileran eredu izatea, zerbitzuaren adostasun-dokumentuaren jarraibide guztiak errespetatuz.
- Hezitzaileen malgutasunean eta konfiantzan sinestea, hau da, hurrekin lor ditzaketen akordioei dagokienez hezkuntza-lana errespetatzea, betiere adostasun-dokumentua ezeztatzen ez badute.
- Zerbitzuan adostasun-dokumentua betetzen dela bermatzea, horretarako koordinazio guneetan gaiari dagokion espazioa emanaz. Ikasturte hasieran dokumentua errebisatuko da eta egin beharreko moldaketak egingo direla ziurtatuko du.
- Hezitzaile, haur zein familia berriek adostasun dokumentua ezagutzen dutela bermatuko du.






Hezitzaileen jokabide-kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, hezitzaileei hau eskatuko zaie:

- Sare sozialetan eta berehalako mezularitzan zerbitzuaren izenean sortutako profilak erabiliko dira beti, ez hezitzaileen profil pertsonalak.
- Hezitzaileek beraien sare sozialetako profil pertsonaletan haurren edo gurasoen lagunak izatea saihestuko dute, eta ez dituzte haien sareetako profilak jarraituko.
- Berehalako mezularitzaren eta sare sozialen bidez ez du izango hezkuntzalanetik harago doan elkarrizketarik eta, salbuespenez egin beharko balitz, haurren guraso edo legezko tutoreari jakinarazi beharko dio. Halakoetan, elkarrizketa horiek zerbitzuko profiletatik egingo dira eta hezitzaile batek baino gehiagok izango du elkarrizketen berri.
- Baliabide horien bidez komunikatzen direnean ez dute taldeko inor baztertuko. Horretarako, bide osagarriak erabiliko dira.
- Tresna digitalen erabileran, hurrekin egindako akordioak errespetatu beharko dituzte.




Haurren jokabide-kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, hurrei hau eskatuko zaie:

- Gure zerbitzuko hurrek ez dute sare sozialetan profila izateko adinik, baina hala ere profila badute, ez dute jarraituko edo ez diete adiskidetasun-eskaerarik bidaliko beren hezitzaileei, ezta zerbitzuarekin lotutako beste edozein helduri ere (udaleko pertsonak, koordinatzaileak, gurasoak, etab.).
- Ez dute bidaliko mezu publiko zein pribaturik, edukiagatik zerbitzuko inor iraintzen edo konprometitzen badu.

- Hezitzaileekin adostuko dituzten tresna digitalen erabilerari buruzko akordioak errespetatuko dituzte.



Haurren guraso/tutore/arduradunen jokabide-kodea

3. puntuan aipaturiko printzipio eta balioez gain, haurren familiei edo tutore legalei hau eskatuko zaie:

- Haurraren autonomia errespetatuko dute; zerbitzuan daudenean teknologia bidezko harremana neurtuz (ordularira edo telefonora ez deituz, adibidez).
- Hezitzaileen lana errespetatuko dute, eta horiekin izandako teknologia bidezko harremana neurtu; bai erantzunen kudeaketan, bai ordutegiari dagokionez.
- Hezitzaileek haurrekin tresna digitalen erabilerari buruz adostuko dituzten akordioak errespetatuko dituzte.



✖ Adostasun dokumentua ez betetzea

Udal-arduradunetz gain, hezitzaile-taldeak egokiak iruditzen zaizkion neurriak har ditzake adostasun-dokumentu hau betetzen ez bada, betiere koherentzia- eta proportzionaltasun-printzipioak betez.

Hauek dira teknikariek eta hezitzaileek har ditzaketen neurri batzuk:

- ✖ Haurrak erabilera ez egokia eginez gero, hezitzaile-taldeak zerbitzuan gailuak erabiltzea mugatuko dio.
- ✖ Hezitzaile-taldeak haur batek zerbitzuan edo zerbitzutik kanpo teknologiaren erabilera desegokia egiten duela ikusten badu, haurraren guraso edo tutoreei jakinaraziko die.
- ✖ Zerbitzuko norbaitek arau etikoak ez betetzeaz gain, delitu izan daitekeen ekintza larriren bat egiten badu (ziberbullyinga edo sextinga bezalako jazarpenak, identitatea ordezte, etab.), Ertzaintzaren delitu informatikoen unitateari eta Adingabeen Fiskaltzari jakinaraziko zaie, ezikusi egin gabe.





Hezitzaileen eta haurren arteko

itun digitalaren eredia

Gure zerbitzuan gaudenean, haurren eta hezitzaileen arteko itun digitala sinatzea eta aplikatzea proposatzen da, gailu mugikorren eta sare sozialen erabilera arduratsua ziurtatzeko. Akordio honetan bi alderdiek bete beharreko arau batzuk daude:

- ✖ Gidatutako ekintza batean ez dugu kontsultatuko, ezta erabiliko ere, smartwatcha (ordularia) smartphonea edo beste edozein gailu mugikor.

Onartzen dugu Ez dugu onartzen

- ✖ Internet bidezko elkarrizketetan ez dugu errespetua galduko, ezta irainduko ere; eta inolaz ere ez dugu inor gutxietsiko.

Onartzen dugu Ez dugu onartzen

- ✖ Teknologia ez dugu erabiliko gezurrak sortzeko bozgorailu gisa, ezta kideei, hezitzaileei, herriko beste pertsoneri, eta abarri errespetua galtzeko ere.

Onartzen dugu Ez dugu onartzen

- ✖ Ez dugu kideen argazkirik partekatuko, ez eta argitaratuko ere, haien baimenik gabe.

Onartzen dugu Ez dugu onartzen

✘ Ez diogu elkarri jarraituko sare sozialetan, ezta “konektatzeko” eskaerarik bidaliko ere (hezitzaile - haur).

Onartzen dugu Ez dugu onartzen

✘ Mezularitza-zerbitzuen edo sare sozialen bidezko elkarrizketetan zerbitzuko kontuez baino ez dugu hitz egingo.


Onartzen dugu Ez dugu onartzen

✘ Komunetan edo aldageletan ez dugu gailu mugikorrik erabiliko, gure eta gainerakoen intimitatea babesteko.

Onartzen dugu Ez dugu onartzen

* **Salbuespenak**

Sinadurak:



Eranskina

- Sare sozial bakoitzarekin egiten dugun lan-mota



_____ haurtxokoak esku hartze birtualerako erabiltzen dituen sare sozialak honako hauek dira:



Instagram




WhatsApp



Tik Tok



Facebook



Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuetako esku-hartze birtuala

www.gipuzkoangazte.eus

@gipuzkoangazte